



Errusiako bi gerra-hegazkin hurbildu, baina buelta eman

Espainiako bi F-18 gerra-hegazkinek Errusiako bi gerra-hegazkini (Tu-160 Blackjack) atzetik jarraitu zuela baieztatu du Espainiako Defentsa Ministerioak, baina badaezpadako neurri bat izan zela nabarmendu du. Izan ere, Errusiako bi gerra-hegazkin horiek ez zirela Espainiako aireko espazioan sartu azpimarratu du.

Gertakaria irailaren 22an jazo zen. Norvegiako kostaldetik gertu Errusiako bi gerra-hegazkin atzeman ondoren, Norvegiak, Erresuma Batuak, Frantziak eta Espainiak hainbat hegazkin aireratu zituzten, aireko espazioa "babesteko".

Errusiako bi gerra-hegazkinek Kantauriko kostaldearen parean hegan egin zuten bitartean Espainiako bi F-18 gerra-hegazkinek jarraipena egin zieten, badaezpadako neurri gisa. Kantabriako kostaldetik gertu, Bilboko aireko espazioan sartzeko zorian zeudenean, Errusiako bi gerra-hegazkinek norabidea aldatu zuten eta Irlanda mendebaldera abiatu ziren.

Atzo bertan ere jakinarazi da urpekontzi errusiarra Kantauri itsasoan antzeman zutela urtarrilean. Gertatutako kasu honetan, berriz, espioitza lana egiten ari zela azaldu dute.



Medikuntzako Nobel saria, Yoshinori Ohsumirentzat

Yoshinori Ohsumi Japoniako zientzialariak jaso du aurtengo Medikuntzako Nobela. Autofagiaren mekanismoa atzeman zuten Ohsumik, eta horregatik saritu dute. Zelulak bere osagaiak desegin eta berrerabiltzeko prozesuari deritzo autofagia.

Hainbat zientzialarik egiaztatu zuten, zelulak bere osagaiak desegin ahal ditu, mintzetan sartuta, bertan birziklatuz desegiteko. Prozedura hau ikertzeko zailtasun ugari izan ziren ordutik, 1990eko hamarkadan Ohsumi mekanismoa azaltzeko gai izan zen arte. Legamiarekin egindako esperimentu batzuei esker utzi zuten agerian zelulek egiten duten lana.

Ohsumi 1945ean jaio zen, Fukuokan (Japonia). Tokioko Unibertsitatean egin zuten doktore-tesia eta hiru urte eman zituen New Yorkeko Rockefeller Unibertsitatean. Japoniara itzuli ondoren, ikerketa taldea sortu zuten Tokioko Unibertsitatean bertan. 2009tik, Teknologia Institutuko irakaslea da.

Aske geratu da Barakaldoko istripuan gizon bat hil zuen gidaria

35 urteko gizon batek bere burua eman zuen atzo Barakaldoko Udaltzainen polizia-etxean, aurreko egunean autoarekin gizon bat harrapatu eta ihes egin ostean. Harrapatutako gizona hil egin zen. Retuerto auzoko bizilaguna da gidaria eta Portugaletekoa da biktima.

Poliziaren arabera, ikerketaren erritmo onak presioa areagotu zuen gidariarengan, eta azkenean, polizia-etxean egin zuen aitortza. Epailearen aurrean deklaratu eta gero, aske uztea erabaki du epaileak. Bi delitu egotzi dizkiote: gizahilketa eta istripuaren biktimari ez laguntzea.

Astearte arratsaldetik ari ziren haren bila, eta hiru pistari ari ziren tiraka: istripua izan zen tokiko bideo-kameraren grabazioa, ibilgailuaren jabetza eta lekukoaren testigantza.

Hiru ildo horiek eraman zuten ikerketa Retuerto auzora. Bertan aurkitu zuten istripuaren furgoneta, eta arratsaldean bere burua entregatu zuen gidariak.

Hasierako ikerketaren arabera, biktimak Megaparken aurrean aparkatu zuen autoa eta, errepidea zeharkatzen ari zela, Sestaorako bidean zihoan furgoneta batek harrapatu zuen.



UPV/EHUko ikasleak MotoStudent nazioarteko txapeletan partehartzaile



UPV/EHUko hamalau ikaslek bi urte daramatzate 250 cc-ko lehiaketa motoa eraikitzeke lanean. Moto horrekin, zortzi herrialdeetako beste 34 talderen kontra lehiatuko dira Aragoiko MotoStudenten.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak (UPV/EHU) MotoStudenten IV. edizioan hartuko du parte asteburu honetan. Unibertsitate mailako moto lehiaketa garrantzitsuena urriaren 5etik 9ra arte ospatuko da Aragoiko Motorland zirkuituan.

Ingeniaritzako ikasleek 250 cc-ko gasolinazko lehiaketa motoa egin dute. 100 kilo inguru pisatzen dituen motozikletak orduko 160 kilometro inguruko gehieneko abiadura lor dezake.

2009-2010 ikasturtean sortu zen eta bi urtez behin egiten den MotoStudent lehiaketak euskal talde baten partaidetza izan du beti. Orain arte lortutako emaitzarik hoberena 2012ko edizioan izan zen, Bilboko Ingeniaritza Eskolako taldeak bosgarren postua lortu baitzuen. Laugarren edizio honetan, Bilboko ikasleen taldeak lehenengo hamar postuetako bat lortu nahi du, orain arte egindakoen artean lehiatuena izango den edizioan, parte hartuko duen talde kopuruarengatik eta talde horien maila altuarengatik.

Lehiaketaren helburua motoziklismoan espezializatutako ingeniari-harrobia sortzea da. Abiadura ez da lehiaketa honen osagai nagusia, lasterketarekin batera motorren diseinuak eta prestazioak ere baloratzen baitira industriaren ikuspuntutik. Era berean, ekonomikoki bideragarria den fabrikazio-plan bat aurkeztu behar da adituek osatutako epaimahai baten aurrean.



EGURALDIA BARAKALDON

Udazkena heldu dela nabarituriko dugu asteburu luze honetan. **Bihar**, tenperatura gora joango da eta ostarte batzuk irekiko dira. **Etzi**, eguneko erdiko orduetan giro eguzkitsua nagusituko da eta tenperatura mantenduko da. **Etzidamu**, aldiz, zerua nahiko ilun egongo da eta tenperatura jaitsiko da.

Hegazkin bat hustarazi dute sakeleko telefono batek eztanda egin ostean

Southwest Airlines airelineak AEBko Luisvillen (Kentucky) eta Baltimoren (Maryland) arteko hegaldi bat bertan behera utzi behar izan du, sakelako telefono batek eztanda egin eta gero.

Enpresak azaldu duenez, bidaiariek eta langileek ibilgailutik irten behar izan dute, bidaiarietako bat ohartu eta gero bere Samsung Galaxy Note 7ri kea zeriola.

Aldeko emaitza Danimarkako partida erabakigarriako

Athletic Clubek gol bateko abantaila eramango du Danimarkara kanporaketa aurrera ateratzeko datorren astean. Yulema Corresek zurigorrien lehen gola egin zuen lehen zatian etxeko taldeari atsedenaldira aurretik joateko abagunea emanaz. Atsedenaldia eta gero lortu zuen talde danimarkarrak berdinketaren gola, Maite Orozek, ordea, erabakikorra suertatuko zen gola erdietsi zuen talde zurigorriarentzako.

